# KONPOSIZIO GARAIKIDEKO IKASTAROA

# ALBERTO POSADASekin

Donostia (GIPUZKOA), 2017ko irailaren 25, 26 eta 27a

## Antolatzaileak:

## Laguntzailea:

## HARTZAILEAK

Konposizio garaikideko teknika, instrumentu-idazkera, proiektu misto eta musika-tresna tradizionalekin teknika berrien erabilerarengan interesatutako musikagile, sortzaile eta musikari oro.

## HELBURU PEDAGOGIKOAK

Gaurko musika garaikidearen ezaugarri estetikoen eta hauetan teknologia berrien erabileren azterketa. Instrumentuen idazkera teknika eta prozesuen azterlana, bereziki haizezko

instrumentuetan. Orkestraren trataeraren azterketa, bakarlaridun lanetan bereziki. Musika-gune mistoen inguruko hausnarketa.

## EGITARAUA

- Alberto Posadasen biografia eta karrera profesionalaren aurkezpena.
- Instrumentua konposizio eredu: Mikroinstrumentazio sortzailea.
- Konposizio musikalari aplikaturiko kanpo ereduak:
  - Musika-natura-matematika erlazioa.
  - Musika eta beste arte diziplinen arteko erlazioa.
- Musika kontzertantea: bakarlari-tutti harreman berri baterantz.
- Espazio akustikoa konposizio parametro gisa.
- Bertaratutako musikagileen lanen aditze eta analisia.

## IRAKASLEA

### Alberto Posadas

1967an Valladoliden jaio, bertan hasi zituen bere musika ikasketak, hauei jarraipena emanez Francisco Guerrero maisuarekin Madrilen.

Bere obran musikak natura eta matematikarekin, zein beste arte diziplina batzuekin izan dezakeen erlazioa aztertu du. Urtetan, berak "mikroinstrumentazioa" deituriko kontzeptua ere sakonki ikertu du. Honen helburua, musika sorkuntzarako materiala musika instrumentuek eskala mikroskopikoan sortzen dituzten soinu txikietan oinarritzean datza.

2002. urtean Bruselako Ars Musica jaialdiko entzuleen saria jaso zuen. 2003/04 denboraldian Ircameko irakurketa batzordeak bere lana aukeratu zuen, honi esker bertako konpositore egoiliar bihurtuz. 2011an Espainiako Kultura Ministerioak Musika Sari Nazionala aitortu zion. 2014ean Bavierako Gobernuak Bambergo Internationales Kinstlerhaus Villa Concordia zentruko (Alemania) konpositore egoiliar bezala aukeratu zuen. Gaur egun Berlingo Wissenschaftskolleg institutuan du konpositore egoiliarraren ardura.

Posadasen musikari Europa osoko jaialdi eta denboraldi garrantzitsuenetan kontzertu monografikoak eskaini zaizkio. Hala nola MUSICA Strasbourg, ULTRASCHALL (Berlin), Wittener Tage fir Neue Kammermusik, Festival ManiFeste (Paris), Huddersfield Contemporary Music Festival, Tage fir Neue Musik Zurich, CDMC (Madrid) edo Musicadhoy (Madrid) jaialdietan entzun ahal izan dira kontzertu horiek. Honako beste jaialditan ere programatu dira bere lanak: Donaueschinger Musiktage, Agora (IRCAM, Paris), Festival d'Automne a Paris, Eclat (Stuttgart), Ars Musica (Bruselas), Encontros Gulbenkian (Lisboa), Warszawska Jesien (Varsovia), Ultima (Oslo), Klangspuren (Schwaz - Innsbruck), edo Operadhoy (Madrid).

Alberto Posadas aldizka gonbidatua da konposizio irakasle lanetan aritzeko munduko hainbat ikastaro eta kontserbatorioetan. Session de Composition a Royaumont (Frantzia), Takefu International Music Festival (Japonia), Academie de composition Philippe Manoury de MUSICA Festival (Estrasburgo), ManiFeste Academy (Paris), edo Lucernako Musikhochschule dira hauetako batzuk.

## DATAK, ORDUTEGIA, IRAUPENA eta LEKUA

**DATA:** 2017ko irailaren 25, 26 eta 27a

**IRAUPENA**: 12 ordu

**ORDUTEGIA:** Irailak 25, 16,30etatik 20,30etara.
Irailak 26, 16,30etatik 20,30etara.
Irailak 27, 11,00etatik 15,00etara.

**LEKUA**: MUSIKENE; EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO MUSIKA IKASTEGIA
Europa Plaza, 2
**DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (Gipuzkoa)**

## MATRIKULAK (BEZa barne):

| | IKASLE BERRIA | SGAEko BAZKIDE/ MUSIKAGILEAKeko BAZKIDE/ * MUSIKENEKO IKASLE EDO **LANGABEA |
|---|---|---|
| 2017KO IRAILAREN 11RA ARTE | 30 € | 20 € |
| 2017KO IRAILAREN 12TIK AURRERA | 40 € | 30 € |

* Baldintza hori dagokion agiriaren bidez frogatu beharko da.

**MATRIKULA EGITEKO AZKEN EGUNA: IRAILAREN 22a, OSTIRALA (LEKU MUGATUAK)**

*Izen-emate ordena errespetatuko da. Ikastaroa burutzeko, ezinbestekoa izango da gutxieneko parte-hartze maila.

## + INFO

**Tel.:** 616 244 975

**e-mail:** info@musikagileak.com / formacion@fundacionsgae.org

**Webs:** www.fundacionsgae.org www.musikagileak.com

*GEHIGARRIAK:*

*Ikastaroa bukatzean, ikaslegoak diploma jasoko du (beharrezko gutxieneko bertaratzea: orduen %80a).

** SGAE Fundazioak programaren edozein aspektu aldatzeko eskubidea erreserbatzen du, baldintzek hala behar badute.